

Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologia

(Theoretical and methodological framework for the analysis of the quality of Basque language)

Larringan Arantzabal, L.M.; Idiazabal Gorrotxategi, I.*
UPV/EHU. Filologia, Geografia eta Historia Fak. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Unibertsitateko Ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz

BIBLID [1137-4446 (2005), 14; 9-29]

Jaso: 05.03.10

Onartu: 05.05.18

Hizkuntza kalitatea neurtzeko eta erabakitzeko zenbait osagai teoriko, metodologiko eta enpiriko gogoratzen dira. Kalitate bakar eta erabatekoa –hizkera guztietarako– baztertuz, kalitate dinamiko baten beharra azpimarratzen da, zehazkiago, faktore testual eta diskurtsiboak kontuan hartzen dituen. Deskripzioak, irizpideak, erabakiak, meta-mintzaira... nozioak esplizituak egiteko ahalegin bat eskaini nahi da.

Giltza-Hitzak: Hizkuntza kalitatea. Hizkuntzaren funtzionamendua. Mintza jarduna. Kalitatearen abiaburuak, parametroak eta arauak.

Se recuerdan algunos elementos teóricos, metodológicos y empíricos para medir y decidir la calidad de la lengua. Dejando de lado una calidad única y absoluta –válida para todas las hablas–, se subraya la necesidad de una calidad dinámica, más concretamente de aquella que tome en cuenta los factores textuales y discursivos. El objetivo es dar a conocer un intento de hacer explícitas las nociones de descripciones, opiniones, decisiones, metalenguaje...

Palabras Clave: Calidad de lengua. Funcionamiento de la lengua. Actividad verbal. Principios, parámetros y normas de calidad.

On rappelle quelques éléments théoriques, méthodologiques et empiriques pour mesurer et décider de la qualité de la langue. En faisant abstraction d'une qualité unique et absolue –valable pour toutes les langues– on souligne le besoin d'une qualité dynamique, plus précisément de celle qui tient compte des facteurs textuels et discursifs. Le but est de faire connaître une tentative et de rendre explicites les notions de descriptions, opinions, décisions, métalangage...

Mots Clés: Qualité de langue. Fonctionnement de la langue. Activité langagière. Principes, paramètres et normes de la qualité.

* Lan honetan 01/02 eta 02/03 ikasturteetan Euskal Filologia Sailean, biok eman dugun Doktorego Ikastaroko ekarpenak biltzen dira. Lan honen beste bertsio bat www.erabili.com orrian ere agertu zen 2004 urtean.

1. AURKEZPEN HITZAK

Kalitatearen gaia gure gizartean aspaldion luze eta zabal dabilen gaia da. Itzelezko arrakasta duen berba da. Kalitatearen txanda omen da. Hortik, eta ezinbestean edo, hizkuntzaren eremura ere –euskararenera, hain zuzen– sartu zaigu. Gaia, beraz, pil-pilean dagoen horietakoa dugu.

Kontu honetaz berri duen batek esan lezake izena dela berria: izana, ostera, ez dela izena adina. Eta, egia esan, berba bidean dago. Hitz honen inguruan biltzen diren auzi arazoez lehenago ere piztu dute euskaldunen eztabaidatzeko gogoia. Zenbaitetan eztabaida sutsuak eta kontraesankorrak eragin ere bai. Hor dugu, besteak beste, garbizaleen –garbizale amorratu–en jokabidea, hor garbizaleen aurkakoen, erdibidekoena, ... Kalitatearen arazoa ez da uste bezain sinplea, ez eta jaioberria ere.

Edozein kasutan, hizkuntza txukunagoa, hobeagoa –kalitate handiago–koa nahi izatea, beti ere hizkuntzaren aldeko jarrera positiboaren seinale da. Euskarari eta haren erabilerari egindako kritikak, balioztapenak, ... argi asko uzten dute euskarari egun, gero eta balio handiagoa ematen zaiola, arreta gehiago egiten zaiola; edota arreta gehiago egin nahi zaiola; gure hizkuntza dela eta, euskaldunok eskuartean darabiltzagun interesak handiak direla. Ikuspegi honetatik ulertu behar dira kalitatezko hizkeraren –euskararen– gainean esandakoak. Hau da, euskararen etorkizuna ziurtatu beharra dago; euskara jatorragoa eta aberatsagoa egiteko badugu zer ikasi eta zertan gure buruak jantziago egin euskaldunok. Gure hizkuntza txukundu eta doitu nahi dugu. Hori lortuko badugu, ezinbestekoa zaigu euskara zaintzea, kontrolatzea. Gure hizkuntza defendatu beharra daukagu.

Ikus daitekeenez, kalitatearen gaineko kontu hauek berez dira eztabaida-garriak, eta are gehiago gure gaurko egoeran.

2. ZER ESAN DEN GURE AZTERGAIAREN GAINEAN

Asko esan eta idatzi izan da gure artean euskararen egoeraz, euskararen kalitateaz eta bere erabileraz. Ez ditugu horiek hemen errepikatuko. Gainera, ez da hori gure helburua. Gehiago nahi izanez gero, bibliografiara jo dezake irakurleak.

Gai honetaz gure artean esandakoak biltze aldera, bi zutabe nagusi egingo ditugu. Batean, euskararen egoera, bere osotasunean hartuko da, bestean, berriz, erabilera zehatzak juzkatzean egiten den bidea ikusiko da. Euskararen gainean esandakoak biltzerakoan, hiztunaren aurretik dagoen hizkuntza errealitateaz ari gara, hiztunak eskueran duen edo izan behar lukeen horretaz. Hizkuntza erraldoiek, hizkuntza handiek beti ere sekulako erraztasunak eskaintzen dizkiete beren hiztunei mintzamolde eta hizkuntza praktikatzeke ereduak dagokienean. Holako egoeretan, hiztunak normalizatzaileak bainoago erabiltzaileak dira, hots, hizkuntza baten kontsumitzaileak, hiztun arruntak. Alderdi hau deskribatzeko, askotan osasun terminoak baliatu ohi

dira: “*euskararen diagnostikoa egin*”, “*euskararen osasuna*”, “*euskara ajeatua*”, “*euskararen sendabelarrak*”, ...

Zer esan da euskarari dagokionean? Euskararen egoera, bilakaera historikoa barne, nahikoa larria da. Euskararen auzo erdarak hizkuntza handiak eta prestigio handikoak dira. Ukipen egoeran bizi da euskara. Baina hizkuntza handiekin borrokan, eta beti ere galduan ateratzen delarik. Oso nabarmena da erdararen eragina eta azpijana.

Euskara hizkuntza “gutxitua” dugu, euskarak ez bide du behar adinako maila, ez da kultur hizkuntza izatera iritsi, lur jota eta burua altxatu ezinik dabilen hizkuntza dugu, behar gorrien pean dagoen horietakoa, hain zuzen, eta abar.

Esaten da, berebat, euskara hizkuntza heldu gabea dela. Ez omen du balio komertzialik. Lortu, lortu du ofizialtasun maila, baina auzi arazo larriak azaldu zaizkio hiztegi kontuetan, testu moldeekin, ... Hainbat eta hainbat alor arrotz zaizkio oraindik euskarari, ez baitu horiek jorrazteko aukera historikorik izan. Beste zenbait eremutan, berriz, euskara oinarritzat duten hizkera zenbait gazteak dira, jaio berriak, administrazio hizkera, esaterako; bada hori eufemismoa dela uste duenik ere, errealitatea aztertuz gero alperrik egingo baitugu administrazio hizkera dugula jokatzera. Hor dugu, orobat, euskararen estandarizazio falta: euskara batuak ez bide du oraindik erdi alderik gainditu. Beste hizkuntzen lepotik gizentzen ari dira gure hizkuntza eta diskurtsoak, baina euskararen kaltean.

Eta okerrago dena: euskarak bere izan dituen esparruak (familia,...) eta ekoiztu dituen aleak, edota galtzen ari zaizkigu, edota zokoratuak ditugu: horren erakusgarri garbia bide da euskaldunok gure tradizioarekiko eta klaskoekiko dugun amnesia.

Beste jende molde batek, oster, kalitatezko oskarbia aldarrikatzen du euskararen zeruetan. Euskarak, azken urte hauetan egindako bidea laburra bezain trinkoa dela esango dizu. Ez gaudela lehengoan: urrats garrantzitsuak eman direla euskara osoko hizkuntza izatera iristeko: abiada bizian hazi eta hedatzen ari zaigula. Azkarregi eta presaka beharbada, hizkuntza indartsuek izan ohi duten “bakerik” eta “sosegurik” ez duela izan behintzat. Sostengu politiko-juridikorik ere ez. Oraindik ere bide luzea gelditzen bazaio ere, urte gutxiren buruan ezer ez izatetik zerbait izatera iritsi dela. Sortze minetan ari dela euskara. Itzulpen mundura eta, esan eta idatzia dago euskal testuaren kalitateak ez diela, behin baino gehiagotan, inbidiarik erdal testuarenari. Areago ez diela batere zorrik ere, garantia osoko testuak baitira.

Badira erdibideko beste balioztatze batzuek ere. Horiek lan doituagoak eta errealistagoak dira. Hauen ustetan euskara ez da, seguruenik, ozeano luze-zabala; agian ez da itsasoa ere, erreka mehea da, eta, gainera, ohi dena edo behar lukeena baino lodiera txikiagoa duena. Edo nahi genukeena baino lodiera txikiagoa duena. Euskara etorri urriko erreka dugu: har litezkeen aleak txikiak dira, hots, haren altxorra txikia da, baina aukera ematen digu zerbait osoago egiteko. Eta horri ekin behar diogu.

Gatozen orain bigarren zutabera: euskararen eguneroko erabilerarenera, hain zuzen. Eredu honek zerikusitua du kalitatearekin, aurrekoak baino estuagoa, seguruenik. Zutabe honetan biltzen ditugu honako balioztatzenok: euskara mordoiloa, maskala, estilorik gabea, ez gatzik ez piperrik duena, traketsa, ezin irentzia, ezin gozatu eta ezin adierazi ari da euskalduna, baldres, trauskil eta zantarra, traketsa alaena, berezkoa du ajea, hantustearen eta ez jakinaren umea, ...

Iritzia da euskara degeneratu bat sortzen ari garela: ez aditzik, ez joskerarik, ez azenturik, ez lexikorik; miraritzat jo beharko genuke –esaten da– esaldi minimoki luze eta konplexuak zuzen amaitzea; oro har, euskara traketsa, interferentzia ikusezinez beteriko hizkuntza sortzen ari garela. Euskal senarik eza nabaritzen dela. Euskara komunikakorrago ez ezik, askotan hizkuntzaren erabilerak “gramatikalki zuzen”-era ere ez bide garela iristen. Honako edo halako idazmoldeak eta hitz-ebakerek –euskal senaren kontrakoak– dagoeneko behin eta berriz ateratzen direla eguneroko erabileran. Hutsen, hanka sartzeen, akatsen zerrenda nahi adina luze liteke datuez, diskurtsoa ezagutu ahala.

Ezin uka diskurtso “katastrofista” baten aurrean gaudela. Eta hori ez da ahoberokeria, guk puztua. Erdal-euskara moduko pidgin baterantz bideratzeko benetako arriskuan omen gaude, “Euskañol” antzeko zerbait sortzeko arriskuan. Terminologiaren ordean des-terminologia sortzen ari gara, estiloaren ordean des-estiloa, geure buruak euskaldundu beharrean des-euskalduntzen ari gara. Inpresioa dago zabaldua ez dugula behar hainbat asmatzen, aldeantze baino. Alderdi honetatik, argi gorri guztiak piztuta daude, eta alarmak joka ari dira.

Bada bestelakorik uste duenik ere. Aurrerapen handiak egin direla esango dizu azkeneko honek; ez dakit zenbat mila euskaldun berri egin dugula, euskaldun zaharrak alfabetatzen ari garela, euskaldun osoak egiten. Euskal Herria euskaltegi bihurtu(ko) dugula, ez dakit zenbatek lortu duela euskara ziurtagiria.

Kontuan hartzen da, bestalde, Euskal Herriko erakunde publikoek azken urte hauetan diru multzo handiak gastatu dituztela euskara suspertu eta gizarteratzeko. Hezkuntza dela, euskaltegiak direla, EITB, egunkari eta aldizkariak, jardun horietan gastatu dira diruak. Eta hortik kanpo ere bai: administrazioa bera euskalduntzeko neurriak, eta abar. Eta gogoratzen da historiak euskarari utzi dituen hutsuneak ezin direla gauetik goizera bete; eta nahi duenak nahi duena esan, ez gaudela lehengoan. Gauza gehienak hobeto egin daitezke eta asko dago egiteko, baina ez gaudela basamortuaren atarian. Gainera, ezezkortasun hutsak ez gaituela inora eramango.

Era berean, badira lan justuagoak. Alderdi zehatzak eta azterketa enpirikoak kontuan hartuz gero eginak. Esan gura dugu, testuak eta haren testuinguruak osoago kontuan hartuz gero egindako balioztatzeak. Hor ditugu, esaterako, Oñederra (1992), Ormaetxea eta Ziauriz (1998), Del Olmo (1998, 2000), Mendiguren (1979, 1996), eta abar.

Gure helburua ez da bestek esanei ohar eta zehaztapenak eranstea. Nolanahi ere, aztertzaile eta ebaluatzaile batzuen balioztapenak eta kritikak benetan dira gogorrak. Gure ustetan behintzat. Esate baterako: euskara martzianoa, exotikoa, sasiletratua, jatorzalea, euskañola, arrotza, iharra, komunikaziorako gauzaeztana, ... Kalifikatzaile horien bidez hizkera ez ezik haren ekoizlea ere martzianotzat, exotikotzat, sasiletratutzat, ... har daiteke eta. Bibliografian aipatzen diren lanetan bila daiteke zeinek zer esan duen.

Zer ondoriozta daiteke? Euskararen kalitatearen gaineko balioztatzeak ez datoz bat. Ematen du ebaluatzaile adina kalitate dugula. Izan ere, ordena eta maila ezberdinetako auzi-arazoak biltzen direla hitz horren inguruan. Nork bere talaiatik ikusten du itsasoa, eta, azken batean, nork bere ingurunearen berri ematen du. Bakoitzaren gogoetak ere hor hartzen du oinarria. Ezinbesteko ondorioa: desoreka.

Desoreka hori dirudien bezain zabaldua baldin badago, orduan garrantzia handia du planteamendu edo gogoeta esplizituak eta zehatzak egiteak. “Dena Gaizki” balioztatze metodoa “All’s Well” edo “Dena ondo” bezain iluna da. Bi biak dituzte toles ezkutuak. Egia esan, sistematizazio mailan ez dugu asko aurreratu.

Kalitatea nozioarekin esan nahi dena hausnarketa bidean sartu beharra daukagula. Hausnarketa teorikoa eta metodologikoa egin beharra daukagula, “ideia eta gogoeta sistema” bat asmatu beharra, hain zuzen. Derrigorrezkoa zaigu nolabaiteko planteamendu teorikoa eta metodologikoa eskuratzea, bate-tik, kasuistika, partzialtasuna, mistizismoa, intuizioa, eta antzeko jokabideak gainditzeko; bestetik, zenbait (sasi)-dilema argitzeko eta haustura egiteko, plan sistematikoa eskuratzeko, xede-asmoak agerian jartzeko, balioztatze adostuagoak egiteko.

3. KALITATEAREN AZTERKETARAKO KOADRO TEORIKOA ETA METODOLOGIKOA ZEDARRITZEKO SAIOA

Gure egitekoa, nolanahi ere, ez da kalitatezko euskarari buruz bestek esanak biltzea. Geure buruari jarri diogun egitekoa, izenburuak adierazten duen lez, kalitatearen ikerketarako metodologia orokor bat zirriborratzea da. Aurrerantzean egiteko horri ekingo diogu. Begitانتzen zaigu funtsezkoa bezain onuragarria ere izan daitekeela eginkizun hau.

3.1. Kontuan hartu beharreko ohar epistemologiko batzuk

Hizkuntzaren balorazioetan, ondo dakigunez, elkarrekiko helburu guztiz bestelakoak gertatzen dira: helburu “propioez” gain, nolabaiteko beste xede historiko-kultural eta ideologikoak izaten baitira tarteko, elkarren artean nekez ezkontzen direnak. Ez ditugu hemen aipatuko, baina, bidenabar edo, horien existentziaz jabetzeak ez digu gaitzik egingo. Zenbaitetan kalitatea hitza elitismotik, selekzioa praktikatzetik, esklusioa bideratzetik hurbil egon

ohi da. Izan ere, kalitatea berez da, hein handi batean behintzat, “bartzertzaile”, “esklusiozile”, “elite-zale”. Mintzairaren “homogenotasuna” ulertzeko bide bat bihurtu daiteke: garbizaletasunaren, norma zaletasunaren, hizkera formalaren aldeko apustuaren, hizkuntza instituzionalizatuaren aldeko joeraren ... bideratzailea. Kalitatea nozioa normaren aldeko joerari eusteko baliabide gisa ager daiteke eta ez erabileraren aldeko indar suspertzaile gisa. Era berean, hizkuntza aldakien aurka eragiteko tresna ere izan daiteke, edota zenbait erabilerari aurka egiteko ikuskera “des-balorizantea” edo balio gabetzailea, hain zuzen.

Hor dugu, halaber, “kalitatea-kantitatea” nozio bikotea. Ikuspuntu analitiko batetik, oposizio horren balio epistemologikoa antzua dela azal daiteke.

3.2. Kalitate nozioa eta euskararen egoera

a) Euskararen egoera den modukoa delarik (ikus lehen parte), kalitatea nozioaren sartzeak badu gure artean nolabaiteko “oihartzuna”. Argia da euskararen higadura, batetik; bestetik, alor berriei ekin beharra du euskarak.

b) Zertara dator kalitatearen aldeko apustua, eta atergabeko aldarrikapena? Kontua argitze aldera, hona kalitatearekin, besteak beste, lortu nahi dena:

- **Lehiakortasuna:** lanabes egokia eta konpetitiboa eskura izatea.
- **Homologazioa:** besteak adina izan gura. Hizkuntza osoa nahi da, hain zuzen.
- Hizkuntzaren **estandarizazioa** eta **normalizazioa**. Kalitatezko hizkera, hizkuntza normalizatu batekin lotzen da. Hala beharko luke euskarak ere, ez baitago kalitaterik hizkuntza osorik gabe. Ildo honetatik, beste hizkuntza batzuek eskura dituzten alorrak errebindikatzen dira euskararentzat ere.
- **Menpekotasuna** astindu gura da. Auzo erdarek, entzuten da, alde guztietatik erasotzen diote euskarari, berau pobretzen eta baldartzen ari delarik gero eta gehiago. Joera hori saihesteko, berebiziko esfortzua egin beharko du euskal hiztunak, eta hizkuntzaren kalitatea ardura handiz zaindu beharra dagokio. Euskarak esamoldeak eta espresabide berriak sortu beharra du, baina ez dago errazkeriara jotzerik, ez dago zabarkeriara jotzerik, edota etxekalte ibiltzerik.
- **Euskararen altxorra** errekuperatu gura da. Euskal senari eutsi, hain justu.
- “Kalitatea” nozio honi, egun, balio **“instrumentalista”** ere eragotzen zaio. Elementu dinamizatzailea izan dadin gura da.

3.3. Metodologiaren helburuak

Garrantzia handiko puntutzat jotzen dugu hasiera-hasieratik, hizkuntza kalitatearen azterketarako proposatzen dugun metodologiaren xede-helburuak azaltzeari. Honako helburuak jartzen dizkiogu:

- a) Azterketa objektua ahalik eta gehien zedarritzea eta deskribatzea. Kalitate nozioarekin zer ezagutzen dugun azaltzea.
- b) Kalitateari buruzko perspektiba berri bat hartzea.
- c) Euskararen kalitatea mugatzeko eta zehazteko irizpideak lantzea.
- d) Kalitatearen konplexutasunaz ohartaraztea eta konplexutasun hori kategoria multzo mugatu batera biltzea. Zehazkiago esanik, kalitatea zer objektu den ikuspuntu teoriko, metodologiko eta enpiriko batetik kokatzea.

3.4. Metodologiaren osagaiak

Metodologiak honako osagaiok bildu edo landu beharko ditu, besteak beste:

Mintzairaren analisirako **koadro teorikoa** eskaini. Halaber, kalitatearen azterketarako ikuspuntu teorikoa jorratu. Honako galdera hauei erantzun beharko zaio: batetik, zein da mintzairaren funtzioa? Zer ikuspegi dugu mintzairarekiko? Bestetik, kalitateari dagokionean, ba al dago araurik edo erregulartasunik ematerik? Zeintzuk dira printzipio nagusiak? Zeintzuk dira kalitatearen ezaugarri edo propietate orokorrak? Kalitatea formalizagarria ote da? Eta zein formalizazio mailataraino? Zer metahizkuntza erabili?

Azterketa metodoa itxuratzea. Hau da, zer alderditatik atzeman dezakegu kalitatea? Zein xede eta helbururekin ari gara, hots, zertarako neurtu eta erabili nahi da hizkera bat? Zein da analisiaren xede-asmoa? Zeintzuk dira kalitatearen ezaugarriak?

Kalitatezko erabilera (eta burutzapen) **enpirikoak** asmatzea eta erabakitzea. Hona zenbait galdera: ekoizpen ezberdinen artean, nola antzeman dezakegu kalitatezko erabilera? Ba al dago jakiterik zer den eta nola identifikatu dezakegun kalitatea delako objektu hori? Zer osagai bereganatzen du? Nola landu irizpideak, eta nola aplikatu mintzajardun bakoitzari? Hau da, zein ebaluazio irizpide baliatu kalitatezko hizkera neurtzeko?

Helburu horiek betetzeko eta gauzatzeko gauza edo baliabide den neurrian beteko du metodologiak bere zeregina.

Gatozen, bada, aipatu berri ditugun osagaiok banan-banan lantzen.

4. KALITATEAREN MARKO TEORIKOA

Ezer baino lehen, bi hitz kalitatea nozioaren gainean.

4.1. Kalitatea zer objektu-mota den argitze aldera zenbait galdera

Zer nozio dugu kalitatea? Kalitatea bai, baina, zer da hori?

Era berean, kalitatezko erabilpena, bai. Baina, zer da hori? Zer-nolako izaera du kalitateak? Zein alderdi ezartzen edo eskatzen ditu? Zeintzuk dira haren propietateak edo tasunak? Nola gauzaten da? Zer da haren funtzionamendua? Zer da eta zertarako balio du?

Kalitatea egoera bat da ala funtzionamendu bat? Graduzkoa ala erabatekoa? Prozesua ala emaitza? Zerbait estatikoa ala dinamikoa eta erlatiboa? Bakarra eta berezkoa ala egoeran egoerakoa? Berezko edo kalitate estatikoa izango litzateke edozein egoeratarako baliozkoa dena. Egoeran egoerakoa, berriz, une jakin batean, jardun baterako balio lukeena. Arego, bada jarrera gisa ulertzen duenik ere. Mailakagarria eta hierarkizagarria da?

Izari anitzeko nozioa izaki, ikuspegi askotatik azter daiteke kalitatea segun eta zein alderdirekin duen lotura.

4.2. Hizkuntzarekiko ikuspuntua

Hizkuntzaren gaineko irizpide, gogoeta, balioztatze guztiek mintzairari eta haren funtzionamenduari buruzko zenbait definizio dute, agerian ez bada gorden, gidari. Kalitate neurtzailearen eginkizunaren eta lanaren azpian nolako printzipio orokorrak dauden (= ikuspegia), halakoa izango da planteamendua ere: gramatikala, testuala, komunikatiboa, diskurtsiboa, ...

Gure aldetik honako puntuok nabarmendu nahi ditugu:

- a) Hizkuntza bere erabileran aztertzen dugu. Giza mintzaira zerbait konplexua da, hainbat gaitasun eskatzen duena; horren erakusgarri argienetakoa berezko hizkuntza batean ekoizten diren testu ahozko eta idatziak dira.
- b) Hizkuntza errotik da soziala, bereziki haren funtzionamenduari dago-kionean.
- c) Hizkuntzak xede-asmo komunikatiboak ditu. Hau da, beti ere, ekintza den aldetik aztertuko da. Ekintza horrek berbaldian eta testutan hartzen du forma. Testu baten ekoizleak, testua ekoiztu behar duenean, inguruko eredueta jotzen du. Hiztunak hizkuntza zein ingurunetan erabiltzen duen kontuan hartzen du.

- d) Hizkuntzak historia eta tradizioa esan nahi du. Hizkuntza eta haren erabilera, gertakari sozialetan sozialena denez, historiak baldintzatzen du guztiz, eta alde horretatik begiratuta, hizkuntza bera bezala, haren erabilera bera ere historiaren fruitua da. Bada hor homogenotasunaren eta dibertsifikazioaren arteko tirabira.

4.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren erreferentzia eredia

Azken urteotan, garai batean gailur-gailurrean zeuden hizkuntza funtzionamenduari buruzko postulatuak aldatu egin dira: eredu formalak indarra galdu egin dute eredu pragmatikoen eta komunikatiboen mesedetan. Gauzak horrela, zuzentasun formalak eta gramatikalak lekua utzi behar izan die beste zuzentasun mota batzuei: komunikatiboari, estrategikoari, hartzaillearen ikuspegiaren arabera osatutakoari, eta abar. Honek guztiak ezinbesteko eragina du gabiltzan gai honetan. Horrenbestez saihestu ezina iruditzen zaigu kalitatearen euskarri eta ardatz diren postulatuak gogoratzeari eta finkatzeari.

4.3.1. Eredua eta bere aplikazio ildoak

Erreferentzia gisa marko teoriko bat hartu behar eta, geure egiten dugu Genevako eskolakoa (ikus Bronckart eta beste, 1985, 1997). Baina beti ere hura dogma bihurtu gabe. Gauzak horrela, mintzajardunei, testuei, diskurtsoei, hizkerari hiru esparru edo egituratze maila errepara dakizkiekeela esan dezakegu:

1. Kontestualizazio esparrua eta berari dagokion egituratzea. Testuinguru orokor hau hirukoitza da, alderdi erreferentzialak, fisikoak eta sozialak osatzen baitute.
 - a) Alderdi erreferentzialari dagokionez honako hauek aipa ditzakegu: nozioen mundua, hots, alderdi lexikoa, nozioen erlazioak, eta eskematizazioak. Esan dezagun alderdi honek batez ere alderdi informatiboari oratzen diola. Kalitatezko hizkerak gaiari, edukiari, informazioari... oratzen dio. Horrela, hiztegi kontuetan sartzen gara. Kalitatezko hiztegi teknikoa, esaterako, terminologia bilakatzen da. Zer esaten den horri, askotan, nola esaten denari baino garrantzia handiagoa ematen zaio. Transakziozko testuetan, esaterako. Jakintza arlo jakin bateko hizkerak arlo horretan egin ohi den “munduaren zatiketa” islatu beharko du. Munduko objektuak ez datoz bat mintzairakoekin, tartean “manipulazioa” baitago. Baina manipulazio hori ezin daiteke edonola egin. Horrenbestez, manipulazio horren kalitatea dago jokoan. Ez dago gauzak esateko “hiztegi” bakar batez toki guztietan aritzerik. Egoera desberdinek hiztegi desberdina eragiten dute. Hiztegi zuzena moldatzen jakitea hura zertarako erabil daitekeen ere jakingarri eta jakin beharreko da.

Kalitate hau, alderdi lexikora ez ezik, fraseologia alderdira ere hedatzen da. Are gehiago, mintzajardunaren eskema moldeak ere harra-

patzen dituela esan behar da. Hau da, testuaren asmo eta zio orokor eta espezifikoen planteamendua dago jokoan. Medikuek gaixoari gaitzaz ematen dion azalpena eta lankideei txosten batean ematen diena gai berdina bada ere, ez datoz bat ez azalpideetan, ez hiztegian, ez fraseologian, ez ... Hau guztia adibideetan ikusiko da.

- b) Mintza jardunaren alderdi fisikoak. Jardunak inguruneari egiten dio erreferentzia. Honako faktore hauek bereiz daitezke: esataria, solaskidea, ekoizpenaren denbora eta espazioa. Ikus daitekeenez, alderdi deiktikoen tratamenduaz ari gara. Deixia bi motatakoa izan daiteke: testuz kanpoko (exoforikoa) eta testu barnekoa edo endoforikoa (lotura anaforikoak).
- c) Azkenik, alderdi sozialak, aurreko osagaien balio sozialak dira. Balio sozial hauen tratamendua bereziki da garrantzitsua eta eragin handikoa testuak osatzerako orduan.

2. Antolamendu eta planifikazio esparrua.

Helburuak izateak plan baten bideratzea eskatzen du. Maila honetan, mintzajardunak eta ekintzak egitura bat hartzen dute, orokorra eta tokikoa. Hezurdura bat, organikotasuna, hain zuzen. Baina hemen ere badira kanpotiko mugapenak: besteak beste, testu motari dagozkionak, hots, aritzeko modu konbentzionalak.

Eta horrenbestez, testuaren edo jardunaren planifikazio eta egituratze mailako kalitateaz mintza gaitzke. Jar dezagun adibide bat: kongresuetarako komunikazioa, esaterako. Hura kalitatezko izango bada, ondorengo fase eta hurrenkera hauek izan behar ditu, hots, honelatsu antolatua beharko du egon: Sarrera, Corpusa eta Metodoa, Emaizak, Eztabaida (ingelesezko *IMRAD*). Txostena egin nahi delarik, edo “abstract” moldeko laburtzapena, edo erreseina, edo horoskopoa, edo ... beti ere horietako bakoitzaren antolatzeko eta planifikazio eskakizunak kontuan hartu beharko ditu baldin eta nola-baiteko kalitatea aitortuko bazaio. Eta edozein mintzajardunek izan ditzake mugapenak eta errutinak, hau da, sarritan edo gehienetan errepikatzen diren egiturak. Berbaldi analisiaren ikertzaileek uste dute bizitzako mintzajardun orok dituela bere errutina-moldeak.

3. Testualizazio esparrua

Maila linguistikoa eta operatiboa da berau. Maila honen bidez hartzen dute lur beste bi esparruetako osagaiek; beste hitzetan esanik, mamitze linguistikoen estrukturazio maila da. Honako azpi mailak bereiztu ohi dira: kohesioarena, konexioarena eta modalizazioarena edo ardura enuntziatiboarena.

Oraingo honetan, beste esparruetako alderdi ezberdinak “materia” linguistikoaz landuak, jorratuak eta bideratuak gertatzen dira. Esparru hau oso

ezaguna egiten zaigu. Materia linguistikoa hau, bestalde, kode erara agertzen zaigu neurri handi batean.

Kohesio baitakoak dira: nozioen arteko lotura, erreferentzia kateak, anafora sistema, gaiaren garapena, ideien arteko loturak, eta abar;

Konexioari dagozkio: esaldien arteko loturak, erlazio logikoak, antolaketa eta organizazioa, ideien banaketa, paragrafoak nola egin (idatziari dagokionean), ...

Modalizazioa edota kontuan hartze enuntziatiboaren barrukoak dira: esatariak bere enuntziatuaren gainean gauzatutako ohar guztiak, hala edukiari dagozkionak nola esateari edo enuntziatioari dagozkionak. Esatariak beti hartzen du posizio bat diogenari buruz, dela jarrera bat, dela iritzi bat, dela balorazio bat, ... Subjektuak testua moldatu egiten du bere burua erakutsiz, posizio bat hartuz. Agerian edo gordean. Zaku zabala da, baina garrantzi handikoa.

Ondorioz, hizkeraren kalitatea ere dimentsio horiei –eta alderdi horiei guztiei– erreferentzia eginez erabaki beharko da. Hau da, lehenengo eta behin testuinguruari begiraturaz (erreferentzialari edo gaiaren tratamenduari, alderdi fisikoei, eta elkarreaginezkoiei); ondoren, antolamendu eta planifikazioari begiraturaz; eta, azkenik, burutzapen linguistikoa ebaluatuz.

Hizkera baloratzekoan gorabehera hauek guztiak beste termino batzuetan ere planteatu daitezke: printzipio, parametro, arau eta iritzi terminotan hain zuzen.

5. KALITATEAREN ABIABURUAK, PARAMETROAK ETA ARAUAK

Baliozko planteamendua deritzogu abiaburu, parametro eta arauen artean bereizketa egiteari.

5.1. Abiaburuak edo printzipioak

Abiaburuak esaterakoan kalitatea eragiten duen oinarritzko ezaugarri multzoa esan nahi da, hots, kalitatea esplikatzeke lege orokorrak edo hatsarreak. Jarraibide orokorrak dira. Gisa honetako formulazioak guztiz ohikoak dira gure artean: zuzentasuna eta egokitasuna dira hizkuntza (hizkera?) onaren –kalitatezkoaren– ezaugarriak. Bi horiei beste batzuk ere gehitzen zaizkie. Nolanahi ere, ezaugarri multzo mugatua da beti ere. Gure aldetik honako hauek proposatuko ditugu:

a) Zuzentasun **formalaren** printzipioa.

Zuzentasun gramatikal edo linguistikoa ere dei genezake. Izan ere, sistemaren eskariez eta ezaugarriez gidatzean datza, eta bere azter

unitatea esaldia edo perpausa da. Printzipio honek kodeketari egiten dio erreferentzia. Denok dakigu hizkera baten kalitatea neurtzeko abiaburu honi emandako lehentasunaren berri. Guztiz normala, bestalde, hizkuntzarekiko dugun ikuspegia eta deskribapenak diren modukoak direlarik. Gurekiko alderdi hau dago “euskara hobean hobe” lelopean ere. Halaz ere, eta argiena izan arren bada eztabaidarik eta zeresanik kontu honetan ere.

b) **Testualtasunaren** printzipioa.

Printzipio honi jarraiki, hertsiki gramatikala den eremuari gainez eginenez, hizkuntza jardunak testu mailako alderdiak erakutsi behar ditu funtsezko aspektu bezala. Testu generoak ere sartzen dira. Testuak, esan bezala, komunikazio unitateak dira. Beraz, maila horretan kokatzen da.

Testu modalitate bat erabiltzera –baliatzera– darama hiztuna, testu horren barruan ibilbide eta aukera ezberdinak egin arren. Zentzu honetan, bai homogenotasun eta bai dibertsifikazio printzipioa da. Praktika eta kalitate berriei irekia dago.

Ohar gaitezen, abiaburu honek hizkuntzaren erabilpenerako hipotesi tipologikoa sartzen duela. Eta hipotesi honek errealitate bakoitzak hizkera modu berezia eskatzen duela egitera garamatza. Horrela sartu zaigu “genero” nozioa. Hitz horrekin haxe aipatu ohia da, helburua duen eta gizartean eratzen den komunikazio gertaera. Gertaera horiek testuetan gertatzen dira batez ere, hau da, ahozko zein idatzizko komunikazio zatietan. Testu mota bakoitzak bere hizkuntza ezaugarri bereizgarriak ditu eta bere barne egitura ere bai. Ohar bedi baita ere, generoak kultura eta gizartearen menpeko direla eta genero berriak ari direla sortzen etengabe.

c) **Berbalitate** edo **diskurtso** printzipioa.

Komunikazio printzipio ere dei genezake. Diskurtsoa eta diskurtso motak garapen sozio-historikoan eraikitako egitura eta berbakuntza diskurtsiboak dira. Izan ere, hizkerak nahiko heterogeneoak izan arren, badira zenbait ezaugarri hizkera horiek modu batera edo bestera konpartitzen dituztenak, eta halakotzat direla (mota bateko direla) esateko bide ematen digutenak, hain zuzen. Abiaburu honen arabera, hizkuntza berbalditan datorkigula esan gura da. Berbaldiaren ezaugarritzean, besteak beste, eremuak (“zer gertatzen den”), mintzaideeki-koak (“nor den partaide”) eta moduak (“hizkuntzari atxikitako funtzioak”) hartzen dute parte.

Hala testualtasunaren printzipioa nola diskurtsoarena aintzat hartzeak ondorio garrantzitsuak ditu gabiltzan konturako. Lehendabizi, hizkeraren kalitatea nekez erabaki daitekeela berba eta esaldia bezalako osagaiekin, hobe zaigula testu eta hizkuntza gertaera osoagoekin aritzea.

Bigarrenik, ebaluazioak egiterakoan osagai handiagoetatik txikiagoetara joan beharko dela: mintzajardunak du garrantzia, eta hortik garrantzen dira egiturei buruzko irizpideak.

d) **Harrera** edo **jasotze** abiaburua

Abiaburu hau ere kontuan hartu beharrekotzat jotzen dugu. Hizkera batek badu zerikusirik hartzailearekin. Areago, merkatuarekin. Eta egoera horretara errenditu beharko du hizkerak. Errealitate printzipioa ere dei genezake berau.

Errealitatean, abiaburu horien artean tirabira gerta daiteke. Tirabira horretan nabarmentzen da, besteak beste, kalitateari buruzko bakoitzaren ikuspegia. Zer esan, bada, printzipioen arteko lehiak? Lehenengo eta behin, tentsioa badela jakinaren gainean egoteak bide emango digu sartzen diren arazoak mailakatzeko eta printzipio haiek erarik egokienean aplikatzeko; bigarrenik, lehiarik denean, parametro desberdinen aplikazio linguistiko diskurtsibo on batek konpon lezake printzipio gatazka hori, bakoitzean estrategia on bat aplikatuz. Kalitate estrategikoaz mintza gaitzke, horra, aipatutako lau abiaburuaren bilgune bezala. Batzuek, ostera, nahiago izango dute lau printzipioak modulu gisa ulertzea, hots, arlo beregain gisa jotzea; kasu horretan, kalitatezko hizkerak alderdi bakoitzean eman beharko du gutxieneko maila.

5.2. Parametroak

Parametroa hitzarekin printzipioen ezaugarriek har ditzaketen zehazpenetako balioa ezagutzen dugu. Balio horiek, jakina, testuinguruaren arabera zehazten dira. Gure gaiari dagokionean, bi urrats dira garrantzitsuak: batetik, komunikazio egoerarekiko egin beharreko egokitzapena (esataria, hartzailea, zirkunstantzia eta berbaldiarekiko egokitzapenak), eta bestetik, hizkuntza jarduna beti ere jardun zioduna eta norabidetua izatetik sortutako eskariak kontuan hartuz geroko urratsa.

Gauzak horrela, aipatutako printzipio horiek modu guztiz bestelakoan aplika daitezke errealitatean, segun eta nolakoa den testuingurua. Esan nahi da, ez direla modu mekaniko batean eta era bakarrean aplikatzen. Horrela, euskararen kalitatea aipatzean haren erabilera jakinaz eta espezifikoaz ari garela kontuan hartu beharko da, ez orokorraz. Komunikazio egoera zehatz bakoitzean zer hizkuntza molda-moldek mugatzen duen erabiltzailea (hiztuna) antzeman beharra dago. Izan ere, erabilera batean (hizkera batean), zer da ebaluagarri? Hemen erregistro kontzeptua lagungarri gerta daki-guke. Izan ere, testuingurua osatzen duten elementuek (NORK, NOREKIN, ZERTARAKO, NOLA...) baldintzatzen dute erregistro bat ala bestea erabiltzea.

Honako parametro (faktore) hauek bereiz daitezke:

Gaia: gai batzuek orokorrak dira, hots, aparteko jakintza berezirik eskatzen ez dutenak; beste batzuek, ostera, espezifikokoak dira, hala hiztegiari dagokionean, nola esamolde eta adierazpen bideei dagokionean, edota bete beharreko rol eta paperei, edota... Gogoratu dezagun gaiaren eta formaren artean lotura estuak izan ohi direla. Edonola ere, erlazio horiek ez dira automatikoak, gai bera adierazteko testu era bat baino gehiago baitago.

Beste parametro bat **formaltasun maila** da. Erlazio sozialarekin lotuta dago berau. Nolabaiteko seriotasunez eta handikiro arizetik konfiantza handiaren jardutera lihoake mailaketa hori. Horrela kontuan hartu beharko dira hizkuntzaren erabilera jendaurrean (debatekoa, eskolako, ...) edo maila pribatuan (lagunartekoa, etxe girokoa, ...), edo ikaste mailan, edo nolatan ematen den. Hizkera formal edo jasoak zuzentasunari eta zehaztasunari ematen diote garrantzia: ahoskera zaindua, egokitasun gramatikala, lexiko zehatza eta jakintza arloari dagokiona. Hizkera formalak hizkera estandarra hartu ohi dute oinarritzat. Hizkera kolokialari, lagunartekoari, ... beste "formaltasun" bateko ezaugarriak dagozkie: adierazkortasun maila handiagoa, elementu deiktikoen presentzia, hiztegi arruntagoa, ...

Kanal edo **bidea** ere parametro gisa hartu behar da. Arraroa egingo da hizketan hizkuntza idatziaren estiloa entzutea. Parametro honek badu eraginik formaltasunean, syntaxian eta esaldien moldaketan. Ahozkoa eta idatzia prozesatzeko baldintzak ere guztiz dira bestelakoak, bata denboraren presiopean eraten baita. Mezua antolatzeke moduak ere guztiz bestelakoak izan ohi dira batean eta bestean. Areago oraindik: guztiz ezberdina da elkarrekiko eragina ahozkoan eta idatzian. Hizkuntza batean hizketan jakiteak ez du hizkuntza horretan idazten jakitea esan nahi.

Hor ditugu, halaber, komunikazioaren **helburuak** (informatzea, dibertitzea, konbentziaraztea, ...).

Ohar bedi edozein hizkuntzak aldakiak dituela. Erkidego linguistiko bateko lagun guztiek ez dute berdin hitz egiten eta idazten. Egoera komunikatibo guztietan ez da hizkuntza modu bakarra erabiltzen. Faktore hauen urratzeak gramatikalak baino larriagoak izan daitezke.

Modu gordinean esango dugu. Zein da haur zaintzaile baten kalitatezko hizkera? K. Mitxelenaren saiakeretan agertzen dena? Inolaz ere ez. Lagunartean handikiro ari denak "*ematen didazu gailera bat?*" jaulkitzen duenak baino akats handiagorik egiten du. Gatozen testuliburueta. Zein da testuliburu bati dagokion kalitatezko hizkera? Testu horietako hizkerak naturala eta erraza behar du izan. Baina, zein da naturala eta erraza 7-8 urteko umeentzat? Dena den, ikus Blanche-Benvenistek (2000) diona. Zer erlazio dago syntaxiazko eragozpenen eta informazioaren ulermenean? Ez dugu bi puntu horien arteko harremanen estudioirik. Edota, zein da hedabideetan erabili behar den hizkeraren kalitatea? Administrazioa bera, agian?

Kalitatezko hizkera zehatzaileak jakin behar du badela zuzentasuna baino garrantzitsuagorik.

5.3. Arauak

Araua hitzarekin hizkuntza ekoizpenetan agertzen diren erregulartasunak edo "errutinak" adierazi nahi dira. "Errutinak" testuak ekoizteko (informazioa aurkezteko, interakzio mota baliatzeko...) modu sozialak eta konbentzionalak dira. Testu batzuek beste batzuek baino antzekoagoak direla erraz konturatu gara. Horren arrazoia sinplea da: hizkuntzak zenbait eginkizun betetzeko existitzen du, eta eginkizun horiek erabakitzen dute zer nolako testua sortuko den jendea komunikatzen denean. Izan ere, ekoizpen batzuek beste batzuk ez bezalakoak dira. Zenbait ezaugarri propio dituzte. Generoaren (motaren) kontzeptua –hipotesi tipologikoa– tresna baliagarria gerta dakiguke hizkuntzaren erabilpenak asmatzeko. Jakina, ezinbesteko zaigu ekoizpen mota edo genero horien deskribzioa zehatzak eskura izatea, bakoitzari dagozkion ezaugarriak identifikatu ahal izateko. Deskribzioa horiek eskura izanez gero, testu edo ekoizpen bakoitzaren erregulartasunak formulatu ahalko dira, hots, ezaugarri bereizgarriak agertu, zerk eragiten duen haren "tipikotasuna" –edota, prototipikotasuna– identifikatu. Zeintzuk diren testu arauak jakin behar da.

Arauak diren aldetik, gramatikako arauen izaera bera dute, gramatikako en zurruntasun eta zorroztasun bera ez badute ere. Arauak, bestalde, globalak –ekoizpenaren egitura globalari buruzkoak– zein tokikoak edo puntualagoak izan daitezke.

Adibide gisa, kasu batzuk ekarriko ditugu esandakoa argitzeko.

1. Ipuin kontaketaz ari garela, mundu guztiak daki praktika mota horren genero egituraren hurrenkera honako hauxe dela: sarrera, non egoera orekatu bat aurkezten den; tentsio egoera, non gertaeren kontaketa egiten den; tentsio gorena eta irteera; koda eta alderdi morala, edota iruzkina; amaiera eta agurra. Egitura hori, hizkuntzaren erabilera eratu-tutako sistema da denboraren joanean.
2. Hona beste kasu bat: *espezialitateko hizkerak*. Zer dira jardun horiek? Hizkuntzaren bilakaera berezi bat, maila horretan ari diren gizakien eta giza taldeen premiak betetzeko egokitutako hizkuntza praktikak, hain zuzen. Alperrik egingo da hizkera horiek beste batzuek ez bezalako deklinabidea dutela esatera, edota atzizki propioak dituztela, edota morfosintaxia aparta, eksklusiboa, hain justu. Espezialitateko hizkerak hizkuntzaren "erabilera bereziak" dira: testu egitura jakina dute, kohe-sioa bideratzeko modu hobetsiak, konexio mekanismo jakinak, eta abar.
3. Kalitatezko administrazio hizkera baterako jokabideen artean honako hauek aipatu ohi dira: administrazio hizkuntzak, bere trinkotasun eta konplexutasun ororen gainetik, laburtasunerako joera erakutsi behar du. Esaldi laburrak erabiltzearen alde jokatu beharra.

Edozein modutan, arauen aplikazio eremua mugatua da. Arrisku bat saihestu beharra dago: neurritz kanpoko jeneralizazioak. Guztiz bestelakoak dira, esaerako, literatur lan bateko kohesio sistema eta administrazio hizkerarena. Irakurgarritasuna, ulergarritasuna eragiten duten baliabideek ez dute balio testu-mota guztietarako. Informazio zehatza ematea ezaugarri positiboa da kazetaritzan; ez, ordea, horoskopoa moldatzean. Hizkera inpersonala ez da balio positibo absolutua. Honela irakurri ahal da “Euskara hobean hobe” liburuan:

“Ideiak ez dira ezezka eman behar, iritzi pertsonalak baztertzeak idazlana arintzen du, adjektibo kalifikatzaile gutxi erabili behar dira, toki gutxitan erabiltzen diren aldaki estilistikoak baztertu behar dira, estilo argia eta arina aukeratu behar da, ideiak pasarteetan berezi, esaldiaren zatiak komak, marratxoak eta abar erabiliz berezi...”.

Hala kohesio sistema, nola konexio sistema aldatu egiten dira testu mota batetik beste batera. Zer esan izen abstraktuen erabileraz eta balioaz? Haurrentzat egindako liburuetan, ulergarritasuna helburu duten horietan, ahal denean saihestea gomendatuko da. Alderantzizko bidea ekingo zaio filosofia-lanetan. Zer esan nominalizazioari buruz? Zer funtzio betetzen du kazetari hizkeran? Zein dibulgazio testuetan? Eta zein agindu testuetan? Galderekin jarraituz: zer esan inpersonaltasuna izenpean biltzen den adierazpenari buruz? Noiz dira positiboak eta noiz arbuigarriak? Ba al dago esaterik adjektibo gutxi erabiltzeak kalitate handiagoa eragiten duela? Ba al dago esaterik hizkuntzaren kalitateak (kalitate orok, gero) hitz eta esaldi laburrak aukeratzeko dirauela? Edota iritzi pertsonalak baztertzean? Besterik eta ezberdinik da iritzi pertsonalak emateak mezuaren ulergarritasuna noiz zailtzen eta oztopatzen duen jakitea. Edota noiz jostokera erraz eta soil baten alde egin behar den erabakitzea.

Hizkera baten kalitatea erabaki gura badugu, derrigorrezko zaigu ekoizpen desberdinei buruzko deskribapen linguistikoak, testualak eta diskurtsiboak eskura izatea. Halaber, ekoizpen bakoitzari buruzko arauak finkatuak izatea ere. Arau horiek lagunduko digute printzipioen eta parametroen arteko lehia nola askatu, besteak beste, zein den zuzentasun gramatikalaren pertinentzia zehazten lagunduko digute, zein den testu baten zuzentasun diskurtsiboa finkatzen, zein den testuaren komunikazio maila. Eta abar. Hau da, zein erabilpen den egokia eta kalitatezkoa kasu bakoitzean erabakitzen. Ekoizpen motei buruzko ezagutzek lagunduko digute kalitatea modu erlatiboa eta dinamikoan planteatzen, hura testuinguruaren eta helburuaren arabera erabakitzen, esparru bakoitzean nola aritu behar den, zein testu lotura mota den ohikoa eta egokia, zein konexio, zein modalizazio mota den egokiena, ...

Arauak eta testu erregulartasunak formulatu eta mugatu nahi izanez gero, bide egokia deritzogu estilo liburuetera, esparru bakoitzerako emandako ereduetera, ikastaroetan aurkeztutako jarraibidetera ... eta holakoetara jotzeari. Edota horiek aintzakotzat izatea.

6. IRIZPIDEEN LANKETA

Atal honen xedea hizkera baten kalitatea neurtzeko irizpideak lantzeko jarraibide batzuk eskaintzea da. Kalitatea erabakitzean irizpideak aldez aurretik agerian jartzeak sekulako garrantzia du.

Objektu bati buruz egindako balorazioaren oinarri osagai bezala defini-tzen dugu irizpidea. Hau da, zerbait baloratzeko elementu arau gisa. Irizpide-ak honelatsu parafraseatu ahal dira: *“erabilera hau gaiztoa da”, “testu hau ez da argia”, “hizkera hau mordoiloa da”, “hizkera pobrea da”, “hizkuntza naturala eta freskoa”, “hizkera maneragabea”, “benetako hizkuntza”, ...* Balioztatze horien azpian irizpide inplizituak daudela esan behar da.

Zeintzuk dira hizkeraren kalitatea erabakitzeko baliatuko ditugun irizpide-ak? Ba al dago irizpide horiek formulatzerik?

Esaten da, kalitatezko hizkeraren irizpide objektiboak aldez aurretik ezarri beharra dagoela. Arazoa, egia esan, korapilotsua da, eta ez uste bezain ino-za.

Korapiloa askatzen hasteko, galdera bat egingo dugu: zer esan nahi da “objektiboa” berbarekin? Irizpideak berberak behar dutela izan erabilera guz-tietarako, beharbada? Edota, era berean aplikatu behar direla zein ere den kasua?

Ebaluaziorako gramatika zuzentasuna hartu izan da irizpide unibertsal-tzat, hots, badirudi irizpide natural edo berezko gisa funtzionatzen duela. Baina abiaburu horrek ere arazo asko sortzen ditu. Hona galdera: akats gra-matikalik gabeko ekoizpena beti da kalitatezko ekoizpena? Areago, zein gra-matika hartzen da erreferentziatzat?

Gurekiko, ez dago berezko edo irizpide naturalik, berezkorik, ebidenterik eta erabatekorik. Hau da, erabatekorik eta absoluturik, testu guztietarako balio duenik. Irizpideak ere testuinguruaren menpeko dira. Honek guztiak badu kontuzko ondoriorik.

Objektiboa esaterakoan balioztatze subjektiboak eta indibidualak gaindi-tzeko bideari ekin nahi dela esan nahi da. Nola, ostera?

Subjektibismo indibiduala gainditzeko bideari ekitean ez da komeni hura ordezkatzera jotzerik, hau da, ez da komeni irizpide subjektiboak iriz-pide objektiboez ordezkatzea. Egokiago deritzogu erabaki eta baloratzeko subjektiboen oinarrian (azpian) dauden erregulartasun eta arauen objekti-batzeari ekitea. Beste hitzetan esanik, nolabaiteko objektibizazioari ekin behar zaiola uste dugu. Gauza bat da ordezkatzeko eta besterik desplaza-tzea. Desplazamenduak ez du esan gura aldatzea. Aplikazio puntua alda-tzen edo desplazatzen dela baizik, ondoren ikuspegi berria sortzen delarik.

Ezinbesteko subjektibismo hau gainditzeko egin diren ahalegin eta saio desberdinak, arau zehatz eta zurrinak aplikatuz, ezinbestean porrotera garamatzate. Arrazoia oso sinplea da: edota ez dago kasu erreal guztietara iristerik, guzti horiek identifikatzerik, denak deskribatzerik eta sailkatzerik, eta arau zehatzez hornitzerik; edota, bestela, orokorregiak izango dira, eta berriz ere, aplikazioa tarteko, intuizioari eta subjektibismoari tarte luzea uzten zaio, luzeegia dudarik gabe.

Gauzak horrela, irizpideak lantzeko bide batzuk eskaini gura ditugu.

- a) Estilo liburuek, testu generoei buruzko azalpenek eta deskripzioek, diskurtsoei buruzko oharrek, ... kasu bakoitzean aplikatu beharreko irizpide multzoa mugatzen lagundu ahal digute.
- b) Irizpideak lantzean, orobat, hizkuntzaren azterketa formalean nahiz hizkuntzaren erabilpenean egindako aurrerapenak baliatzen saiatzea komeniko da. Gramatika zuzentasunari arreta egiten dion ebaluatzaileak ahalegindu beharko du hizkuntzaren komunikazio funtzioari ere egiten.
- c) Irizpideak jorratzerakoan gako hitza testuingurua da, zertarakoa, hain zuzen.
- d) Irizpideak osatzeko lagungarri gerta dakizkiguke, halaber, soziolinguistikako, psikolinguistikako eta hizkuntzaren soziologiako nahiz irakaskuntzako ikerketak eta oharrak. Zientzia horiek argitzen digute erakunde, gizarte marko, edo ikas prozesuan zein izan daitekeen kalitatezko hizkera konkretua. Noiz jo behar den zuzentasun gramatikalaren eta, oro har, alderdi formalen muturrera, eta noiz komunikazioa kontuan hartzen duen muturrera. Noiz emango zaion lehentasuna zuzentasun formalari eta noiz komunikazioari. Demagun ahozko ekoizpena ebaluatu beharra dugula, sagardotegiko solasaldia, adibidez. Izango da zuzentasun formala baino pertinentzia handiago duen faktorerik.

7. LABURPEN GISA

Izenburuan adierazten den bezala, artikulua honetan euskararen kalitatea –hizkuntza kalitatea– zehazteko metodologia bat jorratzen saiatu gara. Gure artean ez dira falta kalitatezko euskararen gaineko oharrak, proposamenak eta gogoetak. Irizpideak ere ez dira falta. Halaz ere, ez da kalitatezko hizkera definitzeko metodologia orokorrik eskaini. Ikuspegi eta xede-asmo ezberdinetatik abiatu eta, irizpideak joera eta maila diferenteetan kokatzen dira, nork bere talaiatik ikusten baitu arazoa. Horrela, askotan arazoa nahasiago eta katramilagoa azaltzen da.

Kalitatezko hizkera –hizkuntza kalitatea– zehazterakoan ondoko bi kontzeptu hauek agertzen dira ia hutsik egin gabe: gramatika zuzentasuna eta

egokitasuna. Bi nozio horiek oso argiak eta ebidenteak dirudite. Burukomikak datoz horietako bakoitza gehiago zehazterakoan eta beste determinatzaile batzuk eranstean. Edota, bien arteko erlazioak argitzean. Utz dezagun alde batera gramatika zuzentasunaren arloa, nahiz eta beti ez den uste bezain argia; zein gramatika baliatu, zuberera, Eibarko euskara, esaterako? Gatozen egokitasuna nozioarekin ulertzen dena azaltzera. Egia esan, kontzeptua ekarri izan da baino ezer gutxi aurreratu da, ez baitago argi zeintzuk diren egokitasunerako erreferentziak. Egokitasunak testuaren –hizkuntza ekoizpenaren– eta testuinguruaren –komunikazioaren– arteko lotura postulatu duela esaten da, baina lotura horretaz gehiago esaten ez bada, egokitasuna edukirik gabeko eskaria geratzen da. Hau da, berriz ere intuizioaren arabera geratzen da. Beraz, berriz ere luzeena falta zaigu: “egokitasuna” nozioa operakorra egitea.

Eta horixe da metodologia batek bete behar duen eginkizuna: kalitatezko hizkeraren inguruko problematika biltzea eta erreflexio baten barruan sartzea. Plan osoago baten barruan sartzea. Gure aldetik, lan horretarako marko teorikoa proposatu dugu. Horrela, euskararen kalitatea balioztatzeko erreferentziak ekarri ditugu, edota erreferentziatzat har daitezkeen osagaiak. Hasteko, kalitatezko hizkera ez dago modu abstraktuan zehazterik. Ildo beretik, kontuan hartu beharreko ohar epistemologikoa eskaini ditugu: saihebidetuek uxatzea dute helburu. Ondoren marko teoriko bat eskaintzen da; bertan euskararen kalitatea balioztatzeko osagaiak biltzen dira, honelatsu: abiaburuak, parametroak eta arauak. Osagai horiekin baitu zerikusirik egokitasuna nozioak. Gauzak horrela, zuzentasun formaren printzipioa presente dago, baina partziala geratzen da. Esan gura da, bere erabatekotasuna kentzen zaiola. Berarekin batera ditugu testualtasunaren printzipioa, eta diskurtsoarena. Parametroak faktore zehatzaileak eta konkretuagoak dira. Arauak funtzionamendurako erregularatasunak dira. Hortik ateratzen ahal ditugu hizkuntza jardun bakoitzerako irizpide multzoa. Hizkera bat kalitatezkoa gertatzen da baldin eta hizkera edo testu horrek eskakizun jakin batzuk gordetzen baditu. Erabakiko da testuak erabilera konkretu horretako ezaugarriak (edukia eta bere banaketa, antolamendua, estiloa, funtzioa, lotura moduak, hiztegia, ...) gordetzen dituela. Edota kalitate kontrola pasatzen duela. Gogoratzen dugu kalitatea dzerbait erlatiboa eta dinamikoa dela, graduzkoa. Onartu beharra dago honako honetarako ongi dagoena, beste horretarako okerra izan daitekeela. Onartu beharko da, orobat, autore sakratu baten testua okerra –hots, kalitaterik gabea– izan daitekeela haurren irakurketa liburu baten agertzeko, hizkera batek ez baitu balio egoera guztietarako. Orobat, onartu beharko da euskara ikasle baten testuari 10 jartzea, nahiz eta “beste ikuspegi batetik begiratzuz”, baztergarria izan. Testuak balio mugatua du. Kalitatezko testua esatean ez da esaten testu hori ereduagarria denik, egoera horretan balekoa dela baizik.

Metodologia bat izateak honelako ondorioak dakartza.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRESAROBÉ, Kolesti. eta beste. *Irakasleen Euskalduntzea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- ALBERDI, Xabier eta SARASOLA, Ibon. *Euskal Estilo Libururantz. Gramatika, Estiloa eta Hiztegia*. Zarautz: EHUREN Argitalpen Zerbitzua, 2001.
- AMURIZA, Xabier. "Ikasleen euskara". *Egin*, 1997.01.24.
- , "2001. urteko euskara". *Egin*, 1997.01.25.
- ARRASATE, Manu. *Euskarazko Albistegietarako Esku-Liburua*. Bilbo: Euskal Irrati-Telebista.
- BARREÑA, Andoni. "Hizkuntzaren kalitatea irakaskuntza sisteman", *Eleria*, 5, 2000; 74-81.
- BLANCHE-BENVENISTE, Claire. "Dificultades sintácticas y lectura", *Infancia y Aprendizaje*: 89, 2000; 39-50.
- BRONCKART, Jean-Paul. *Le fonctionnement des discours. Un modèle psychologique et une méthode d'analyse*. Paris: Delachaux et Niestlé, 1985.
- , "Fonctionnement langagière et entreprises normatives", in G. Schoëni, J.-P. Bronckart & P. Perrenoud (arg.) *La langue française est-elle gouvernable?* Paris: Delachaux et Niestlé, 1988; 112-132.
- , *La activité langagière, textes et discours*. Paris: Delachaux et Niestlé, 1997.
- Egunkaria. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria, 1995.
- GARZIA GARMENDIA, Juan. *Joskera Lantegi*, Zarautz: HAEE/IVAP, 1997.
- HAEE-IVAP. *Hizkera Argiaren Bidetik*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1994.
- IDIAZABAL, Itziar eta LARRINGAN, Luis M. (Ed.) *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1998.
- LARRINGAN, Luis M. "Hizkuntzaren kalitatea", *Ikastaria 11 (Eusko Ikaskuntza)*, 2000; 65-76.
- LERTXUNDI, Anjel. "Tradizioa, idazlearen kale kantoitik". *Euskera-XLI (2.aldia)*, 1996.
- LÓPEZ DE ARANA, Inaxio eta BEITIA, Lidia. "Hizkuntza eguneratzeaz", *Senez*, 17, 1996; 61-73.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier. "Irakaskuntza liburuetakoa euskararen desberdintasunak", *Euskera*, 1979; 210-213.
- , "Euskararen hizkuntza ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta", *Euskera*, XLI (1996, 2); 583-604.
- MURUA, Iñaki. "Kalitatea gure esparruan", *Hizpide*, 38, 1997; 85-104.
- OLMO, Karlos del. "Oratoria, akatsak, itzulpengintza eta kalkoak", *Senez*, 21, 1998; 29-54.
- , "Kalitate arauak itzulpengintzan: jaio dira berriak", *Senez*, 22, 2000; 53-77.
- ORMAETXEA, Idoia eta ZIAURRIZ, Maider. "Testu-liburuetakoa hizkuntza-maila", *Senez*, 21, 1998; 55-69.

Larrigan, L.M.; Idiazabal, I.: Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologia

OÑEDERRA, M. Lourdes. "Hizkuntzen osasun. Neurbide eta diagnosi linguistikoak",
Bat, Soziolinguistika aldizkaria 7/8, 1992; 141-157.

SARASOLA, Ibon. *Euskara batuaren ajeak*, Irun: Alberdania, 1997.

SALABURU, Pello eta KINTANA, Xabier. *Euskara hobean hobe*. Bilbo: UPV-EHUko Argitalpen Zerbitzua, 1984.

ZUAZO, Koldo. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania, 2000.

ZUBIMENDI, José Ramón eta ESNAL, Pello. *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, 1993.

ZUBIMENDI, José Ramón. "Euskararen kalitatea: zuzentasuna eta egokitasuna". *Euskera*, 1997-3, 42, 1997; 705-709.